

EROSKI-K BESTE SUPERMERKATU BAT INAUGURATUKO DU GAUR, BILBON, AUTONOMIA KALEAN

- **Saltoki berrituak elikagai freskoetan espezialista den gama bat eskaintzen du, eta tokiko produktuen alde egiten du**
- **EROSKIk 8 milioi euro inbertitu ditu martxoan erositako hamar dendak berritzen eta eraldatzen**
- **Iaz erositako 10 dendetatik berriz irekitzen duten bederatzigarrena da, udaberri honetan inauguratuko duten azkena.**

Bilbo, 2021eko martxoaren 25a.- [EROSKI](#)k supermerkatu bat ireki du gaur, Autonomia kaleko 17.ean (Bilbon). Martxoan erositako hamar dendetatik irekitzen duen bederatzigarrena da. Iaz, lau denda inauguratu zituzten Bilbon —Henao eta Autonomia kaleetan eta Errekaldeko eta Deustuko auzoetan—, bat Itzubaltzetan (Getxon), beste bat Erandion eta beste bat Basaurin. Iaz erositako 10 dendetatik berriz irekitzen duten bederatzigarrena da, udaberri honetan inauguratuko duten azkena.

Hala, EROSKI bere presentzia handitzen ari da Bilboko auzo guztietan, eta bere eskaintza osatuko du dendak ipinita Getxon, Astrabuduan, Santurtzin, Basaurin eta Galdakaon. Era horretan, 90 supermerkatu izango ditu guztira Bilbo Handian.

Denda berriak EROSKI/City du izena, eta 1.124 metro koadroko salmenta aretoa du. 29 langile arituko dira, formakuntza jaso dutenak freskoen atalean espezializatzeko eta bezeroei arretarik onena eta erantzunak eskaintzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarriarik behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta EAEn 848.000 bazkide inguru ditu; gainera, oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere.

Tokian tokiko produktuek garrantzi handia

"Produktu freskoen eta tokian tokikoen alde egiten jarraitzen dugu. Ez da bakarrik gure izaeraren ikurra, baizik eta baita herritarren eskakizun gero eta zabalago bat ere Covid-19aren garaiotan", esan du EROSKIk iparraldean dituen supermerkatuetako zuzendariak, Ismene Fulgenciok. Eskualdeko 10.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta horiek erosteko 650 milioi eurotik gora erabiltzen ditu urtero.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere beren tokia dute supermerkatu berrian, elikagai joera berri guztiak biltzen dituzten guneekin. Gainera, atal horretan, produktu espezifikoko sorta zabal bat dago, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gatz gutxi jan behar dutenentzat. Horretaz gainera, lurrindegi-parafarmaziaren atal zabal bat du, eta prestakuntza berezia duen langilea edukiko du bezeroari zainketa pertsonalerako arreta osoa eskaintzeko.

Eraginkorragoa eta iraunkorragoa

Era berean, saltokia iraunkorragoa da ingurumen aldetik; izan ere, kontsumitzen duen energia %60 gutxitzen du supermerkatu konbentzional baten aldean, eta eraginkortasun eta ingurumen iraunkortasun baldintza zorrotzak betetzen ditu; horrek indartu egiten du EROSKI taldeak ingurumenarekin eta gizarte ongizatearekin duen konpromisoa. Hotz industrialean aplikatzen duen berrikuntza teknologikoari esker, eraikinak gutxiago kontsumitzen du. Gainera, argiterian LED teknologia darabil; horri esker, argiztapena homogeneoa da eta ikusmenarentzat oso eroso, eta ingurumen arriskua eta kontsumoa gutxitzen ditu.

Janari banatzaileetan lehena EAEn

EROSKI da liderra EAEko elikagaien banaketan. 406 saltoki ditu guztira autonomia erkidegoan, hala nola supermerkatuak, hipermerkatua, cash & carryak, gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak, eta *online* supermerkatua, zeina bakarra baita erosketak EAE osoko edozein etxetara eramaten dituen.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)